

Kardaberaz kalea berritzeko obra adjudikatu da eta lanak gutxi barru hasiko dira

■ Adjudikazioa atzoko Gobernu batzordean egin zuen udalak ■ Kardaberaz kalea eta Atzietara dijoan karkaba berrituko dituzte ■ Aurrekontua: 1.192.959,17 €



Kardaberaz kale berrituko ez du espaloirik izango.

KARDABERAZ kalea eta karkaba berritzeko obrak oso denbora gutxi barru hasiko dira. Gobernu taldeak atzo adjudikatu zion obra *Moyua* enpresari (Kale Nagusia berritu zuen enpresa bera). Behin obra adjudikatu eta gero, hurrengo pausoa da udala eta enpresaren arteko kontratua firmatzea. Hirigintza sailak Kronikari adierazi dionez, kontratua 15 eguneko epean sinatuko da. Hortik aurrera, enpresak 8 hilabeteko epea du lanak bukatzeko.

KALE NAGUSIKO OBRA BERDINA

Kardaberaz eta *Txiliko karkaba* berritzea Hernaniko Karkaba berritzeko planaren bigarren fasea da; aurrenekoa Kale Nagusia eta Kale Nagusitik Kardaberazera bitarteko karkaba izan zen.

Kardaberaz berritzeko obra ere Kale Nagusikoaren berdina izango da: batetik, ur instalazio eta saneamendu guztia berritu (ur-zikinak, alkantariak eta abar); eta, bestetik, instalazio berriak sartzeko infraestruturak lurpean

jarrira utzi (argindarra, fibra optikoa eta abar). Kalearen zorua eta itxura ere erabat berrituko da: Kardaberaz berri-

■ Saneamendua instalazioak eta lurra berrituko dituzte.

■ Obrak abuztu-irailerako bukatua behar du.

ak ez du espaloirik izango eta granitozko lurra jarriko diote, Kale Nagusiari bezalaxe.

HASIERAN ZEIN TRAMO ITXI ERABAKITZEKO

Kale Nagusia tramoka berritu zuten, obrak ahalik eta traba gutxiena egin zezan. Kardaberaz kalean ere antzeko formula erabiliko da; baina, hasieran zein tramo itxiko diren oraindik behintzat erabakitze dago.

HIRUGARREN FASEA

Alde zaharra berritzeko proiektuak hiru fase ditu. Kale Nagusia eta Kardaberaz berrituta, hirugarren fasea faltako da. Hirugarren fasea da, batetik, Iturriaga kalea (*Urrats zapateria* paretik Tilo-setara); eta, bestetik Kale Nagusira bitarteko karkaba zatia, . Batasunako Gobernu taldeak sartu du *Hirugarren fasea* 2002ko inbertsio proposamenetan. Hala ere, proposamenak eztabaida fasean daude oraindik, baina, gutxi barru jakingo da obra hori egiteko partidariak badagoen. □

'Perfiles Especiales Selak' enpresako 120 langileak huelgan daude

■ Soldata igoera eta 35 orduko lan-astea eskatzen dituzte, besteak beste ■ Greba mugagabea da.



Selak enpresako langileak asteardean, Zinkoenean.

'PERFILES Especiales Selak' enpresako langileak greban dira hilaren 3a ezker. Hernanin 120 langile daude, eta Enpresa Batzordetik Kronikari jakin arazi diotenez "mugagabea da greba, Enpresak negoziatzeko borondatek ez baitu erakusten".

LAN BALDINTZAK HOBETZEKO

Selak-eko langileek lan baldintzak hobetzea eskatzen dute. Beren soldatak Gipuzkoako metaleko soldaten mediaz azpitik omen daude eta baita Beran, Nafarroan, dagoen grupo bereko enpresako soldaten azpitik ere. Soldatak parekatzea nahi dute. Horrez gain, 35 orduko lan-astea eskatzen dute eta prekaritatea eta behin-behineko lan kontratuak bukatzea.

ABENDUA KOBRATU GABE

Langile Batzordearen hitzetan, azaroan aurkeztu zioten enpresa zuzendaritzari 2002 urterako hitzarmena, beren eskariak biltzen zituena. Enpresak ez omen du oraindik "tajuzko" erantzunik eman, eta abenduko nomina ez ordaintzea izan da azken erantzuna.

Gauzak horrela, *Selak*-en Hernaniko planta geldirik dago, eta langileak mobilizazioetan. Atzo, esaterako, *Sabera Services*-ko konpresora gelditu arazi egin zuten.

ENPRESAK EZ DU IRITZIRIK PLAZARATU

Selak-eko enpresa zuzendaritzak ez du gaiari buruzko iritzi publikorik eman nahi izan. □

EA-k 'Hiri Batzarra' du gaur

■ HERNANIKO Eusko Alkartasunak batzarra du gaur, arratsaldeko 19:00etan, Elkartetxean. Alderdiak afiliatu eta jarraitzaile guztiei dei die batzarrera agertzeko. □



GALARRETA
FRONTOIA

Gaur binakako txapelketako partidua:
ZEBERIO II - IRIARTE / ALTUNA I - ETXABE

GAUR ARRATSALDEKO 16:00 ETATIK AURRERA ERREMONTA JAIALDIA:

1. partidua: MATXIN III - ETXEBERRIA II / ZALAKAIN - ZESTAU III
2. partidua: ZEBERIO II - IRIARTE / IÑIGO - LIZASO
3. partidua: EZKURRA - AIZPURUA II / ALTUNA I - ETXABE
4. partidua: ZEBERIO I - ZANDIO / SARASUA - EKIZA

Umeentzat denbora libreko tailerrak auzoetan

■ Tailerrak monitoreek zuzenduko dituzte ■ Auzo bakoitzean astean behin izango da eta ekainera bitartean ■ Debalde dira ■ Udalak jarri ditu martxan.

UDALAK umeentzako aisialdi tailerrak jarriko ditu auzoetan. Tailerrak 6-12 urte bitarteko umeentzat dira eta astean behin egingo dira: astelehenetik larunbatera, umeentzat egokiena den egunean. Tailerrak 2 ordu-takoak izango dira: aste barruan 18:00etatik 20:00etara eta larunbatetan, goizetan.

Sei begiralek bideratuko dituzte tailerrak eta programa zabala eskainiko dute: eskulana, jokoak eta abar. Hala ere, dinamikari berari eta umeen arteko komunikazioa indartzeari emango diote garrantzi berezia.

UMEEK AUZOAN LEKUA ETA DENBORA IZATEA

Auzoetan denbora libreko tailerrak jarrita, proiektuaren helburua da edade desberdineko umeek auzoan bertan leku eta denbora propio bat izatea. Adin ezberdinetakoak elkarreza ere garrantzitsua dela dio Mila Apezetxea zinegotziak auzoetan dinamika hori pixkana galtzen ari omen delako.

Tailerrak euskeraz dira eta auzoetan euskera indartzea ere badute helburu. Beste helburu garrantzitsu bat da, auzo-etako talde eta elkarteak ere proiektu honetan sartzea eta auzoetako mugimendua indartzea.

Apezetxeak nabarmendu duenez, auzo elkarteek oso begi onez hartu dute idea eta lagun- du ere asko lagundu dute.



Floridako umeak Etxeberrin egingo dituzte tailerrak.

HAUR TXOKOEN SEGIDA

Umeentzat aisialdi tailerrak antolatzea *Haur Txoko* proiektuaren jarraipena da. *Haur Txoko*ak duela 12 urte sortu ziren eta helburu nagusia zuten umeek eskolaz kanpo ere euskera modu naturalean erabiltzea.

Gaur egun, ordea, egoera asko aldatu da: batetik, herriko ikastetxe gehienetan euskera hutsean ikasten dute; bestetik, berriz, eskolaz kanpoko aktibitateak geroz eta gehiago dira.

Batasunako zinegotziaren hitzetan, horrek denak ekarri du *Haur Txoko*en izaera eta funtzioa berriz planteatu beharra. Eta hortik etorri da esperientzia hori oinarri hartu eta auzoetara zabaltzea.

6 AUZOTAN

Haurrentzako tailerrak 6 auzotan jarriko dira: Floridan, Ereñotzun, Antziolan, Elizatxon, Latxunben eta Zikuñagan. Hala ere, zenbait kasutan, auzo batzuetako umeak tailer berean bilduko dira. Honela, Karabel eta Akerregiko umeak Zikuñagara bilduko dira; Osiñaga eta Portukoak Elizatxora; eta, Sorgintxulokoak, Latxunbera.

APUNTATZEKO PORTALETAN

Tailerrak bi edo hiru aste barru hasiko dira eta auzo elkarteek portaletan jarriko dituzte apuntatzeko listak. Epea urtarrilaren 18a da. Hala ere, izena ematea ez da derrigorra, hobeto antolatzeko orientatiboa baizik. □

JASOTA BEZALA

ZE GERTATU DA?

Joandako larunbatean, Errege bezperan, Hernani hutsik geratu zan, hilda bezela. Haur, guraso, aitona eta amonen poza, parra eta algarak ikusi, entzun eta dastatu ezinik geratu ginan, Erregeak ez ziralako Hernaniraino etorri. Jakina, ezin etorri bertako 'jauntxoek' ongi-etorri egiten ez dietean, beren esku diran udal karguetatik galarazten ez dituztenean Erregei egin izan zaizkien eraso eta burlak. Horrela, herriaren kultura zanpatu- rik herriaren alde ari dirala esaten dute ajolakabe hoiek. Herria bere

esanetara jarri nahi duten ajolaka- beak. Lortuko ote dute?

Zer ari da gertatzen gure herrian? galdetzen diogu gure buruari eta ezin tajuzko erantzunik arkitu. Erregeen Kabalgata antolatu- zen ibili diranek, nahikoa sufritu dute egin zaizkien erasoekin. Hainbeste urteetan nola aguantatu duten da harriztekoa.

Bertako poderearen jabe diranek ez dute Errege Magoen aldeko apusturik egin. Hori gauza garbia da. Alkateak eta Kultur kontzejal- lak hitz politik baina hutsak esan dituzte azken egun hauetan: 'dirua

prest dago baina antolatzailerik ez'. Baina, beren ingurukoek gogotik egin dituzte propaganda, presioa, mehatxua, etabar luze bat... Erregeak etorri ez ditezen.

Ondorioa jakina da, guztiz penagarria dan bezela: Erregerik ez, umeak triste, gurasoak hasarre, dendak eta tabernak hutsik, eta herria bera hilda. Baina, agian, Bata- suna eta inguruko danak pozik eta gustora, beren nahia egin dalako.

Iñaki Arratibel
EA-EAJ-ko zinegotzia

KABALGATA EZ DELA ETA

Errege egunaren bezperan, udalak subentzionatuta, kabalgata zegoen, baina aurten arrazoik desberdinak direla eta, antolatzaileek ez dute kabalgata egin, eta polemika, nahiko ridikulua, sortu da. Bestalde, Hernanin abenduaren 24an, egun osoan, Olentzero ugari eta anitzak herrian zehar ibiltzen dira. Udalak ez ditu Olentzero hauek antolatu- zen, ezta subentzionatzen ere.

Hernanin beste edozein lekutan bezala, errealitatea aldatzen ari da eta aipatutako bi ospakizunak dira horren eredu. Olentzeroa, orain dela urte batzuk ia ezezaguna indartzen ari den bitartean, kabalgata eta errege magoen jaiak, gizartearen dituzten erroak galtzen ari dira. Horrela, Olentzeroak antolatu- zeko arazoak ez dauden bitartean, Kabalgata egiteko antolatu- zailak ez dute lagunik aurkitzen.

Kultur aldaketean ondorioak. Edo- zeinentzat ulergarriak.

Baina, batzuei kostatzen zaie, eta horrela, Arratibel zinegotziak, hainbeste maite duen kabalgatan parte hartzeko bere burua eskaini beharrean, Udalarri kabalgata antolatu- zeko eskatzen dio.

Benetan penagarria urte berria- ren lehenengo polemika, usain txar- rrekoa.

Josu Arrieta

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Idazkera ikastaroan izen emateko, gaur azken eguna

■ Euskeraz idazten jakin arren, maila hobetu nahi duen jendearentzat da ■ Urtarriletik ekainera.

DOBERA Euskara elkarteak ikastaroa antolatu du, idazkera lantzeko. EGA edo paretsuko maila duen jendeari zuzendutako ikastaroa da. AEK eta Udal Euskaltegiko hiru irakaslek emango dituzte klaseak urtarrilaren 14tik ekainaren 3ra bitarte. Klaseak astelehenetan izango dira, Biteri kultur etxean, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

MATRIKULA ZABALIK

Izena eman nahi duenak gaur du azken eguna. Goiz edo arratsaldeko Doberako bulego- tik pasa (Kale Nagusia 6, behe) edo 943 332799 tele- fonora deitu.

SUBENTZIONATUA

Matrikula 120 euro (20.000 pta) da. Hernaniko Udalak diru laguntzak emango dizkie her- naniarrei. □

Sukaldeko olio erabilia biduko dute gaur ferian

■ SUKALDEKO olio erabilia gaur bilduko dute ferian. Arratsaldeko 16:00etatik 19:30etara egongo dira kiroldegiko frontoi parean. □

BERTSOLARITZA

Bertso afaria, larunbatean Martindegin

■ ETZI bertso afaria egingo dute Larrarte sagardotegian, Martindegin. Maialen Lujanbio eta Jexux Mari Irazu ariko dira, zein baino zein. Sarrerak Oialume tabernan daude salgai. □

'Osasun ona izateko' ikastaroa gaur, Biterin

■ 'SUMENDI' elkarteak hitzaldiak emango ditu Hernanin, Osasun ona izaten ikasteko. Biteri kultur etxeak antolatu ditu eta 12 egunetan izango dira. Lehen hitzaldia gaur, arratsaldeko 19:00etan hasita. Irekia da.

IRRATIAK

(F.M. 99,2) 11:40: Xabi Larralde Iparraldeko Batasunako kidearekin solas- ean 12:30: Sumendi elkarteak osasunari buruz antolatu dituen jardunal- diak. 22:00etan: Izurri berria musika talde berriari elkarriketa.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Sagastiberri
Urbieta 7
☎ 943 552941
▶ Gaez: Diaz
Andoain. Nagusia 19
☎ 943 592057

ESKERTZA

Manuel Olano Garayar 'Mallu'

Manuel Olano Mallu-ren familiaren izenean bihotz-bihotzez eske- rrak jasotako doluminengatik, eta eskerrak Mallu-ren arimaren aldeko hiletara etorri zineten guztioi. Era berean, eskerrak Herna- niko Askatasuna erakundeari Mallu-ri egindako omenaldiagatik.

GUZTIAGATIK MILA ESKER.

Hernanin 2002ko urtarrilaren 5ean.

IRAGARKI MERKEAK

■ Donostiako Antiguoa auzoan, pertsona euskaldun bat behar dugu goizetan haurra zaintzeko. Deitu 943 215510 (Amaia)